



IRIZAR

2011KO URTEKO TXOSTENA



ZUZENDARI NAGUSIAREN MEZUA

SENDOTASUNA ETA HAZKUNDEA

Niretzat oso pozgarria da gure Taldearen **"Sendotasunaz eta hazkundeaz"** hitz egin ahal izatea, inguratzen gaituen giro ekonomikoa kontuan hartuta.

2011. urtean zehar egiazki eragin positiboa izan duten jarduera egokiaren inguruko faktoreez gain, nire iritziz, faktorerik garrantzitsuenak da Taldeak gaur egun duen dibertsifikazio geografikoa eta industrialak. Urtearen erdialdetik aurrera merkatuek izandako beheranzko joera Europan baino ez zen gertatu, eta are nabariago herrialde periferikoetan.

2008an ez bezala, orain eragiten ari zaigun krisia, jardueraren, prezioen eta marjinen inguruan presionatzen gaituena, ez da krisi global bat. Gure negozioak atzerrian finkatzen ari direla errealitate bat da, eta horien hazkundearen ondorioz, eta esportazioak gure fakturazioan gero eta pisu handiagoa hartzearen ondorioz, aukera sortu zaigu gure ingurunean aberastasuna eta enplegua sortzeko.

Irizar Taldea % 16 hazi da 2011n, batik bat atzerriko lantegietan lortutako % 34ko hazkundeari esker.

Berriro ere, eskerrak eman nahi dizkiet bezeroei guran jartzen duten kofiantzagarritik, baita Irizarreko pertsona eta laguntzaile guztiei ere, behar izan denean beti hor egoteagarritik, prest.

Azkenik, gure etorkizunerako duen garrantziagarritik, IRIZARreko pertsona guztiek egindako azterketa estrategikoa eta pentsamendu estrategikoen

berrikuspena nabarmendu nahi dut, horiek eguneratuz bezeroen garrantzia eta Talde ideia indartu direlako.

Beste alderdi batzuk ere nabarmendu dira, hala nola marka, komunikazioa, dibertsifikazioa eta lehiakortasun iraunkorra.

José Manuel Orcasitas
Irizar Taldeko Zuzendari Nagusia



IRIZAR ZENBAKITAN





Irizar Taldeak 500 milioi euroko fakturazioaren itxi du 2011. urtea -errekor historikoa da-, nazioartean duen presentzia eta industria dibertsifikazioan oinarrituta.

Fakturazioaren % 20 barne merkatuari fakturatutakoari dagokio, eta % 80 esportazioko merkatuei dagokie, Espainian fabrikatutako produktuen zein atzerriko lantegietan fabrikatutakoaren bitartez.

Fakturazio horrek esan nahi du % 16 hazi dela

aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero, eta IRIZAReko ezarpen produktibo gehin-gehienetan gertatu da. IRIZAR markaren sendotasunaren eta gure bezeroek gugan jartzen duten konfiantzaren ondorioa da. Horrenbestez, IRIZARek hazten jarraitzen du, eta mundu mailako erreferentzia nagusietakotzat hartzen da goi gamako autobusen eta autokarren fabrikazioaren arloan.

Guztira 4.850 autokar ekoitzi dira, eta horietatik 1.100 Gipuzkoako lantegian eginak dira, Espainiara eta Europara bidaltzeko, batez ere.





HAZKUNDE GLOBALA

Europen, oraindik ere oso jokaleku delikatuan, bereziki herrialde periferikoetan, aurrerapausoa eman da IRIZAR markako autokar integrala abiaraziz eta komertzializatzen hasiz, horrela eskatzen duten herrialdeetan. Lehendabiziko unitateak urtearen bigarren zatitik aurrera fabrikatu ziren eta, horregatik, kopuruak oraindik ez dira esanguratsuak. Lehenengo bezero horiek adierazi duten inpresio positiboa, ordea, bai da esanguratsua.

Gure Taldearen fakturazioaren ia erdia, zehazki **% 48**, atzerriko plantetatik dator, nagusiki Mexiko, Brasil eta Marokotik, bertako hazkundera **% 34** izanik.

Irizar Brasilen, 2010ean zehar jarduera mailak izan zuen susperraldiari jarraituz, 2011. urtean egunean luxuzko 3 autokar ekoizteko erritmoa finkatu da, hau da, orain arten planta horretan egindako jarduera maila gorena. Barne merkatuan izandako hazkundera ez ezik, garrantzi handia izan dute batez ere Txile, Australia eta Hegoafrikara egindako esportazioek ere. Ildo horretan, azpimarratu behar da Brasilgo lantegiak bere produkzioaren **% 75** esportatzen duela.

Halaber, **Irizar Mexikon**, urtearen batez besteko produkzio erritmoa egunean 3 autokar izan da, eta ondorioz ateratzen diren zifrak dira urtean 700 autokar baino gehiago egiten direla. Horrek ere errekorra dakar, eta oinarrian dago gure firma herrialdeko bigarren operadore handiaren autobusen hornitzaile bihurtu dela; gaur egun hiru operadore handi daude. IRIZAR mexikar merkatuko lider ukaezin moduan kokatu da, **% 50eko** kuotarekin.

Irizar Marokok hazkundera nabaria lortu du 2011. urtean zehar, lehenik eta behin, luxuzko autokarren merkatuaren hazkunderaren ondorioz, IRIZARek **% 100eko** kuotarekin lider izaten jarraitzen duelarik, eta, bigarrenik, herrialde horretarako hiri autobusen fabrikazioaren ondorioz.

Lantegi magrebtarrak **% 10** handitu du bere fakturazioa aurreko urtearekiko, eta Taldearentzat hazteko aukerarik handienetakoak dituen plantetako bat da.

Taldeko gainerako enpresek, Hispacold, Masats, Jema eta Datikek fakturazio osoaren **% 16** ekarri diote aurtun taldeari.

Jema eta Datik, taldean azkenak sartu direnak, hazteko potentzial handia duten sektoreetakoak dira, hau da, potentzi elektronikakoa eta informazioaren kudeaketa adimendunerako softwarearen sorkuntzakoa, hurrenez hurren. Enpresa horiekin taldearentzako sinergiak ezarri dira, **Jema Electronica martxan jarritz eta Datikeko produktuak barneratuz eta garatuz, autokarren merkaturako.**

Hispacoldi eta Masatsi dagokienez, hazkundera tren sektorera bideratutako dibertsifikaziotik etorri da.



MUGARRI GARRANTZITSUAK

IRIZAR SEKTOREKO AZOKA NAGUSIETAN

IRIZARek nazioartean duen presentzia indartu du sektoreko hitzordu nagusietara erakustera joanda. Katowice, Kielce, Birmingham, Rimini eta Kortrijk hirietako azokak izan ziren nobedade garrantzitsuak aurkezteko esparrua.

IRIZARek **Busworld - Kortrijk (Belgika)** nazioarteko azokan parte hartu zuen, 1.000 metro koadro baino gehiagoko stand batekin: standa irekia, berritzailea eta etorkizun kutsukoa zen, konpainiaren irudiarekin bat eginda, eta segurtasun, fidagarritasun eta zerbitzuaren inguruan transmititu nahi ziren balioetan oinarrituta. Ekitaldia inauguratzeko ekintzetan parte hartu zuen, eta prentsaurreko bat eskaini zuen, markaren ikurren balioa agerian jartzeko eta bere autokarren gama osoa aurkezteko.

Bertan Irizar i6 modelo berriaren autokar bat, Irizar PB berritu bat eta Irizar i4 bat ikusi ahal izan ziren, guztiak ala guztiak bere bertsio integralean eta DAF motorizazioarekin. Gainera, azokaren gunearen sarrera nagusian Irizar i6 eta Irizar PB bat egon ziren ikusgai, lehena Volvo etxeko txasisaren gainean, eta bigarrena Scania etxeko txasisaren gainean, IRIZARen estrategia txasis marka desberdinekin lan egiten jarraitzea dela erakusteko, bere autokarrak bertsio integralean eskaintzeaz gain, bateko eta besteko markatuetako bezeroek egin dezaketan eskaria osatzeko alternatiba gisa.

IRIZARek pasa den **apirilean Katowice hirian** egin zen **Targi Glob** izeneko azoka aukeratu zuen Irizar i6 bere autokar berria bertsio integralean ofizialki aurkezteko.

Erakusmahaiak Wanicki Konpainiarekin banaketa

lanetarako izenpetuta duen akordioa aurkezteko eszenatoki bihurtu zen; izan ere, akordio horren ondorioz Wanicki arduratuko da IRIZAR markako autokarrak merkatu poloniarrean saltzeaz eta salmenta osteko zerbitzua eskaintzeaz.

Halaber poloniar lurraldean baita ere, udazkeneko lehen hitzordua **Kielceko Trans Expo 2011** azoka izan zen. Azoka hori irailaren 20tik 22ra bitartean egin zen, eta IRIZAR lehenengo aldiz egon da bertan bere stand propioarekin. IRIZAR-Wanickik jarritako erakusmahaiak saria jaso zuen, azokan zegoen diseinu eta muntaketarik onenagatik.

Poloniako azokaren ostean urrian **Birminghamen (Erresuma Batua)** egin den **Coach & Bus Live** azoka etorri zen. Erresuma Batuan sektoreak egiten duen azokarik garrantzitsuenetako bat da, bezero, hornitzaile eta prentsa espezializatutako jendea elkartzen baititu. Berritasun moduan, 13 metro luze den Irizar PB berritua aurkeztu zen, gamari azken urtean gehitu zaizkion hobekuntzekin batera.

Egutegian bat etorrira, **Riminiko (Italia) Bus & Turismo** azoka dago, urrian laugarren edizioa bete zuena, zen turismoari eskaintzen zaion eta Italiako merkatuan erreferentzia nagusia den TTG business to business azokaren baitan. IRIZARek bere gama osoa aurkeztu zuen hitzordu horretan.

**EUROPAN**

IRIZAR MARKAKO AUTOKAR INTEGRALA

2011. urtea funtsezko urtea izan da Taldea europar kontinentean kokatzeko, IRIZARen autokar integralak muntatzeko lantegiaz eta Europako laguntza sare berria -24 ordu urteko 365 egunetan-martxan jartzeaz gain, lankidetzaz hitzarmen garrantzitsuak izenpetu baitziren Erresuma Batu, Frantzia, Holanda eta Poloniako enpresekin, autokarrak banatzeko.

IRIZAR UK

Ildo honetan, abuztuan Irizar UKren instalazioak inauguratu ziren Worksop-en. Inaugurazioan Erresuma Batuko operadoreen ordezkari garrantzitsu asko elkartu ziren, horietako asko IRIZARen bezeroak, agintariekin, elkarteekin eta prentsarekin batera.

IRIZAR AUTOCARS

Irizar Autocars Frantzian sortu zen, Tours herrian, batez ere Frantzian DAF motorra duten IRIZAR autokar integralak banatzeko eta zerbitzatzeko.

COSMO COACH&BUS

Maiatzean, berriz, Cosmo Coach & Bus enpresa eratu zen Holandan, COSMO TRUCKSek eta IRIZARek banaketaren arloan izenpetutako hitzarmenaren ondorioz. Holandan IRIZARen autokar integralak saltzea eta salmenta osteko zerbitzua eskaintzea da bere jardura nagusia. Bolsward-en dago, eta hamarkada bat baino gehiagoko esperientzia dauka autobus eta autokarren salmenta osteko

zerbitzua eskaintzen, bereziki DAF teknologiadun autobus eta autokarrena.

WANICKI COMPANY

Azkenik, Polonian banaketarako hitzarmen berri bat ezarri da Wanickirekin, herrialde horretan IRIZARen autokar integralen salmenta eta salmenta ondoko zerbitzua eskaintzeko. Wanicki Company 1991n sortu zen, eta zortzi urte geroago, 1999an, DAF Trucks konpainiaren ordezkari baimendu bihurtu zen. Gaur egun, DAFen banatzaile bakarra da Polonian, eta haren kapitalaren %100 poloniarra da.



DIBERTSIFIKAZIOA

IRIZARKO GAKO ESTRATEGIKOA

2009an industri dibertsifikazioaren inguruan abiarazitako estrategia funtsezkoa da IRIZARen hazkunderako. Taldea sendotzea eta arrisku kontzentrazioa gutxitzea du helburutzat. Lehenasuna garatzeko ahalmen handia duten beste sektore batzuetan sartzea da, eta gaitasun berriak garatzea eta taldearen barruan sinergiak sutatzea ahalbidetzen du, negozio berriak, aberastasuna eta enplegua sortzeko, misioarekin bat etorrira.

DATIKEN SORRERA

2011ko maiatzean, IRIZAR Datik enpresaren erreferentziazko bazkide gisa sartu zen, Miramongo parke teknologikoan (Donostia).

Datik enpresak ITS sistemak eta soluzioak (Intelligent Transport Systems) diseinatu eta instalatzen ditu trenbide zein errepidezko garraioaren gestiorako.

Bere produktu nagusia iSAE da, zeinak garraioaren gestio adimentsua eta sofistikatua eskaintzen duen pertsonen bizi kalitatea hobetze aldera. Sistema erraza, malgua, fidagarria da, eta beste sistema batzuetan integra daiteke.

JEMA ELECTRONICAREN SORRERA

JEMA Electronicaren sorrera Irizar Taldeko enpresen artean sinergiak bilatzearen fruitua da.

Irizar Taldeak 2009ko abenduan erosi zuen JEMA eta, 58 urteko esperientziarekin, liderra da potentziako elektronikaren sektorean.

Bere jarduera hiru negozio arlotan egituratuta dago, sektore bakoitzari ematen zaion arreta bere

ezaugarrientzako egokiena izan dadin:

- Elikadura Kritikorako Sistemak: zeharo sendoak eta fidagarriak diren soluzioak kimikaren, petrolioaren eta gasaren industriarako eta energiaren sorkuntzarako.
- Elikadura Sistema Aurreratuek, maila teknologikorik handiena eskatzen duten aplikazio oso-oso berritzaileetarako, horien artean partikulen ikerketarako eta fusio nuklearreko laborategiak.
- Energia Berriztagarrien Sistema Fidagarriak eta naturak zuzenean ematen digun energiari etekinik handiena ateratzeko gai direnak.

JEMA Electronica JEMAtik sortu da Taldeak dituen premiei erantzuteko, hain zuzen ere sistema multiplexatuetan eta autokarrak eta beren osagai nagusien gestiorako beharrezko elektronikaren dituen premiei erantzuteko. Dibisio honen barruan etorkizun hurbilerako aurreikusten diren proiektuetan hainbat sistemaren horniketa sartzen da, esaterako argiztapenerako, klimatizazio kontrolerako eta sarrerako sistemak.



KANPO KOMUNIKAZIOA

Kontuan izanda zein garrantzitsua den markak IRIZARentzat, kanpoko komunikazioa nabarmen baino nabarmenago indartu da konpainiaren pentsamendu estrategikoetan definitzen den filosofiarekin.

" Marka da gure aktiborik nagusiarena, eta gure helburua da marka indartzea, gure bezeroei produktu eta zerbitzurik hobereak eskainita haien konfiantza eta leialtasuna lortzeko, enpresa gisa eta komunikazioan estrategia onak eta egokiak erabilia.

Horretarako ezinbestekoa da produktuen posizionamendu egokia lortzea eta bezeroen espektatibak betetzea.

Horrela Taldea sendotzea lortuko dugu eta errazagoa izango da bezeroek guran konfiantza handiagoa izatea. Era berean gure negozioak errentagarriagoak izatea lortu ahal izango dugu, gure misioarekin bat etorrita aberastasuna eta enplegua sortzea ahalbidetuz "



BERRIKUNTZA

%100 ELEKTRIKOA DEN IRIZAR HIRIKO AUTOBUSA EUROPARAKO

Ziur gaude % 100 elektrikoa den hiriko autobusa dela hirietan etorkizunean erabiliko den garraiobidea, eta, horregatik, IRIZARek segmentu horretan lider posizioa izaten lagunduko dion proiektu estrategiko bat zuzentzen du.

IEB (Irizar Electric Bus) proiektuaren helburua da autobus elektriko berritzaile bat garatzea, gaur egun egitura, trakzio sistema, energia sorrera eta pilaketa, komunikazio, kontrol eta operazioari dagokienez dauden erronka teknologikoak gaindituz. Asmoa da lehen prototipoa 2014an zirkulatzen ikustea Donostiako kaleetatik.

IRIZARek gidatutako enpresa partzuergo bat eratu da, non JEMA eta DATIK enpresek ez ezik - biak Irizar Taldekoak - Donostiako hiri garraioko konpainiak (DBUS) eta CEIT, TECNALIA eta VICOMTECH zentro teknologikoek parte hartzen duten.



LEHIAKORTASUN IRAUNKORRA

BARNE KOMUNIKAZIOA

Barne komunikazioari emandako bultzada; bitarteko fisiko eta teknologiko egokiak erabilia informazioa eta komunikazioa hobetu nahi izan da, pertsonak gero eta konprometituagoak izateko eta beraiei eragiten dieten ekintza eta erabakien partaide bihurtzeko.

Pertsona guztien partaidetza IRIZARren analisi estrategikoan.

Urtearen amaieran egin zen analisi estrategikoan IRIZAReko pertsona guztiek hartu zuten parte.

Analisi honen prozesua hainbat lan bileraren bitartez egin zen. Lehen fase batean 80 pertsonak hartu zuten parte guztira; pertsona horiek Zuzendaritza Taldekoak, Kontseilu Errektorekoak eta langile zuzenak eta zeharkakoak ziren, eta IRIZAReko jarduerari eragiten dioten kanpoko eztabaidagaiak aztertu zituzten, hala nola egoera makroekonomikoa eta sektorearen, merkatuaren eta lehiakideen analisia.

Lehen analisi horretako ideietatik harantzago, hainbat gogoeta egin ziren IRIZARren barne egoeraz eta AMIAz (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak), eta, azkenean, gogoeta horietatik ondorio orokorrak atera eta IRIZAReko pertsona guztiei helarazi zitzaizkien, prozesuan parte hartzeko aukera ere eman zitzaielarik; izan ere, iradokizunak eta proposamenak egiteko aukera eman zitzaien, eta jasotako guztia Irizarren lehiarako posizioa hobetzeko ekintzetan gorpuztu zen.

ABERASTASUNA ETA ENPLEGUA SORTZEA

IRIZAR, dagoen krisi egoera egonda ere, lanpostuei eusten ari zaie krisiaren eragina gehien pairatzen ari diren produkzio plantetan, eta, ez hori bakarrik, izan ere 2011n pertsonen kopurua handitu du, 180 pertsona gehiagorekin.



LEHIAKORTASUN IRAUNKORRA

INGURUMENA ETA IRAUNKORTASUNA

Dudarik gabe %100 elektrikoa den eta 0 igorpena duen hiriko autobusaren garapena eta geroko ekoizpena da IRIZARek ingurunearekin eta iraunkortasun lehiakorarekin hartuta duen konpromisoaren adibiderik hoberena.

2011n zehar, gainera, inbertsio handiak egin dira fabrikazio prozesuetan eta ekintzetan, esaterako ingurumen sentsibilizaziorako kanpainak eta txukuntasuna eta garbitasuna bultzatzeko kanpainak, pertsoneri zuzenduta eta irudiaren gaineko proiektu integral baten barruan sartuta.

Horidena IRIZARek iraunkortasun lehiakorra lortzeko duen politikaren printzipio garrantzitsuenen baitan. Hona hemen politika horren puntuak:

- Ingurumeneko irizpideak bere produktuen diseinuan aplikatzea (ekodiseinua).
- Hobekuntza Teknologiko Erabilgarriak bere fabrikazio prozesuetan sartzea.
- Ekoefizientziako neurriak ezartzea gero eta hondakin gutxiago sortzeko.
- Energiaren kontsumo arduratsua.
- Gure pertsona guztiak ingurumen, gizarte eta ekonomiaren ikuspuntutik iraunkortasuna lortzeko bideekin konprometituta egotera bultzatzea.

INGURUNEA

"Gure ustez posible da mundu hobeto bat".

Inguruko unibertsitateekin lankidetzan jarraitu dugu, unibertsitateetako ikasleek, batez ere azken ikasmailetan ari direnek, IRIZAR hobeto ezagutu dezaten.

Gainera, karrera amaierako proiektu, beka edo praktikak egiteko eskaintza handitu da, unibertsitateko karrera bukatu duten ikasleentzat eta inguruko ikastetxeetan (Goierri, Ugle, Tolosaldea, Elgoibar...) ari diren ikasleentzat, azken praktikak gurekin egin ditzaten.



Zumarraga Bidea, 8. 20216 Ormaiztegi (Gipuzkoa), ESPAÑA. Tel.: (+34) 943 80 91 00 / Fax: (+34) 943 88 91 01
irizar@irizar.com / www.irizar.com